

# bid egileak



**Iñaxi Etxabe (1933)**

Egilea:

**NIKOLAS ALDAI**

## Senideetan hamaikagarrena

*SP*  
amaika senideko familian gazteena da Iñaxi Etxabe Oliden andrea. Senideetako hiru, bera baino zaharragoak, jaio berri-tan hil ziren; laugarren bat, 36ko gerran. Beraz Iñaxik zazpi anai-arreba ezagutu ditu. Zumaiako auzo den Oikian jaio zi-ren denak, bi bizitzako Soutz baserrian. Iñaxi, 1933ko martxoaren 26an.

Gurasoak, aita Jose Manuel, Aizarna-zabalgo Erlauta baserrikoa, eta ama Manuela, Oikiako Iparre baserrikoa, maizter sartu ziren Soutzen. Geroa-go, aukera izan zutenean, baserriaren jabe egin ziren.



Iñaxi Etxabe Oliden (1933)

Iñaxik beti ezagutu izan ditu abereak etxean. Zazpi-zortzi bat behi, ardi batzuk, lau-bost ahuntz, hazteko txerriak eta oiloak. Hala ere Soutzeko ekonomian nekazaritza zen nagusi Iñaxi bertan bizi izan zen bitartean.

Baratzetik ateratako tomateak eta eguneko esnea zituen otarra buru gainean hartu, eta Zumaiara saltzera joaten ezagutu zuen ama. Bi tunel eta zubia igaro behar izaten zituen bidean, beti ere Bilbotik Donostiarako tren-bideari jarraiki, pare bat kilometro eginez.



Aita, Jose Manuel Etxabe



Ama, Manuela Oliden



Oikia, Artaditik ikusita

Geroago Donostiara ere joaten omen ziren tren hartuta, traturako jenero asko baldin bazen; tomateak, lekak, sagarrak, misurkak, garaian garaikoak.

Sasoia zenean anguletan ere ahalegintzen ziren Soutzen. Ez zuten urrutira joan beharrik. Nahikoa angula izaten omen zen orduan etxetik gertu igarotzen zen Urola ibaian. Harrapatutako angulak etxean propio eginda zeukaten aska batean gordetzen zituzten. Angula tratuak apenas zeukan sekreturik Soutzekoentzat. Donostiako ostalari eta jattetxe jakinak izaten zituzten bezero edo erosle; eta saldu ezinik, behin ere ez.



Soutzetik 50 metrora dagoen zubipe honek ez zuen oraintxe ikasi izango angulen berri!

## Anaia gerran hil

Eskolara hasi aurretik ikasi zuen gerraren berri lñaxik. Ondo gogoan du nola mutil talde bat Soutzera bildu zen eta etxe atzeko estalpean nola egon ziren, haiek eta Indamendi gainean soldaduak azaldu ziren arte.

«Han, nafarrak bazetoztik eta ezkutatzera joan behar diagu hemendik» esan eta joan omen ziren norabait mendira, sasi tartean edo ezkutatzera.

«Naparrak omen ziren haiek etorri ziren gure etxe ondoraino —kontatzen du lñaxik.

Akordatzen naiz nola ibili ziren eta nola jan zituzten latako gauzak. Ondorengo egunetan gu ibili ginen jolasten haiek utzitako lata hutsekin. Hori gogoan dut. Hortik aurrerako askorik ez, anaiarena salbu.»

Geroxeago izan zen Jose Mari anaiarena. Soldaduska egokitu gerra garaian eta Madrileko frentean zebiltzala hemengo hiru mutil hil ziren zerbitzen zuten kainoia lehertuta. Zarauzko bat, Artadiko beste bat eta Jose Mari, lñaxiren anaia. 1937ko uztailearen 24an izan zen.

«Nik lau urte nituen eta akordatzen naiz abisua nola etorri zen —dio lñaxik. Oikiako





Indamendi Artaditik ikusita



Jose Mari Etxabe, 1937ko uztailaren 24an Madrilera frentean hil zen Iñaxiren anaia

plazan bizi zen gizon bat etorri zen etxekonera, zuzenean gurera etortzen ausartzen ez eta. Alboko gizonak ekarri zuen albistea gurera. Gogoan daukat non negoen eserita. Hura disgustoa gurasoena!!!»

Etxean ez omen zuten politika konturik eta aipatu ohi. Baina hiru anaia ibili ziren gerran. Bat denbora luzean, gainera; bala tartean. Onik atera, ordea. Bala urratu txikiren bat beso batean edo, besterik gabe.

## Eskolaratzea

Bera baino bost urte zaharragoa den Emilio anaia lagun zuela hasi zen Oikiako eskolara Iñaxi, bost bat urte zituenean. Oraindik ere gogoan dauka zumaiarra eta euskalduna zen Angelita Zinkunegi maistrak egin zion harreara. Franco agintean jarri eta gero ere, euskaraz mintzatzea onartzen zien eta gainera jolasarako pilotak egiten zizkien maistra hura estimagarria izango zen. Beharbada horregatik izango zuen pilota jokoa hain gogozko Iñaxik. «Garai batean onena» izan zela, harro gogoratzen du oraindik ere.

Behin eskurtsiora joan ziren Oikiako, Artadiko eta Zumaia herriko hainbat eskolaume.

Zumarragako Antiguán igaro omen zuten eguna. Arratsaldean pilota partiduak jokatzeko jaitsi ziren Zumarragako pilotalekura. Artadiko Etxabetarrei egokitu zitzairen zumarragatarren kontra jokatzea, eta galdu.

Orduan Oikiako maistrak «neskarik bazen!!!» bota zuen erronka. Konfiantza osoa baitzuen Iñaxi hautsiko zuenik ez zela izango. Pilotan aritzeko moduko arroparik ere ez omen zuen soinean, eta Iñaxik nahiago ez jokatzea. Zer esanik ez, kontentu aurkaririk ez zenean azaldu.

Oikiako pilotalekuan jokatzeko ari zirenean askotan egoten omen zitzaizkien begira bai maistra, bai Inazio Goikoetxea apaiza, zumaiarra hau ere, eta bai auzoko alkatea Ina-



Iñaxi, zazpi-zortzi urte zituenean



Iñaxi, pilotarako sasoi ederra zuen garaian

zio Larrañaga, Txortenekoa. Honek hain eroso moldatzen zela ikusita, behin baino gehiagotan agindu zion Donostiara joaten zen hurrengoan berak ekarriko ziola erraketa bat. Maiz samar joaten zen arren, apenas Iñaxiri erraketarik sekula iritsi zitzaion. Eskuz nagusi izatearekin konformatu behar. Eta honetan ere, adin bertsuko mutil koskor bat baserri batera morroi etorri zen arte. Hark kendu omen zion pilotan zuen nagusitza.

Ez zen pilota, ordea, zeukaten jolasketa bakarra. Kolore desberdinekin pintatuta dotore gordetzen zituzten arkume tortolosekin *Sakaponetara* ibiltzen omen ziren. Baita lurrean arrastoak egin eta harri koskorrekin *letokotan* ere. *Txolotean*, intxaur ale txikiekin, kanikarik ez eta. Eta zenbat joan-etorri eta



lñaxi txirringan ibiltzen ikasi zuen egunean

atzera-aurrera ez ote zuten egin *txirrilaren* atzetik!!!

Aurrekoengandik jaso zuten beste zaletasun bat txori-habia bila ibiltzearena izan zen. Hori udaberrian. Neguan, elurra egiten zue-  
nean, *patxizaharra* franko harrapatzen omen zuten. Horretarako, sukaldeko leihotik atari erdira alanbre bat luzatzen zuten. Atari erdian sukaldeko leiho aldetik sardango baten gainean zegoen galbahe azpian janari pixka bat jarri eta txoria noiz sartuko zain egotea besterik ez zuten egin behar. Orduan sardango oinondoari lotuta zeukatzen alanbretik tira egin, eta galbahe azpian gelditzen ziren *patxizaharrak*. Hormatxoriei, txolarreei, deitzen zieten *patxizaharra* Oikian.

## Baserri lanetan

Hamalau urtera iristean amaitu zitzaion lñaxiri Oikiako eskolatzea. Etxean eskaini zioten nahi bazuen Zumaian ikasten jarraitzeko aukera. Baina atzera eragiten omen zion Zumaiaira joan beharrak. Gaztelania nagusi zen giroan sartu eta ezagutzen ez zuten jende batekin aritu beharrak izua sortzen ziolako, etxean lanean gelditzea erabaki zuten; etxekoei laguntzen soroko lanetan, belarretan, inaurkinetan, baratzean. Behar zen guztian.

Behiak jezten ez omen zuten ikasi. Ardiak eta ahuntzak jezten bai, ordea. Segan eta aitzurrean ez ezik, arraunean iaioa izaki, anguletan ere maiz ibiltzen omen zen. Igande arratsaldeetan eta, itsasmarea goian zenean, ibaia bare-bare urez beteta zegoenetan, etxeko txanela hartu eta bakar-bakarrik joaten omen zen askotan, bai ibaian gora edota behera, Bedua alderaino. Inoiz anaiarekin ere bai, lñaxi arraunean eta anaia polainean zela. Eta lagunekin, hazixe-agoa zenean. Baina orduan ibaian paseatzera, gehienbat.

Oso txikitatik ikasi behar izan zuten iturrirako bidea ere. Soutsek ez baitzuen etxean urrik. Eta eguneroko ur-garraioa lan astuna izango zen zortzi-hamar pertsona bizi ziren etxean.

Bidea ondo ikasteko hainbat joan-etorri egina da errotara ere lñaxi. Artoa eta garia





Etxe ondoko Urola ibaian txanelean anaia eta bi lagunekin, eta etxeke ilobarekin «pasiatzen»

## Josten ikasten

eho behar izaten ziren. Ibaia gertu bai, baina errotak nahiko urruti. Bata Aizarnazabalen eta bestea, Zumaian, Narrondon. Hasi- siera batean anaia zaharragoa lagun zuela joaten omen zen, astoa hartuta. Gerora, bera bakarrik. Ez ehotzera eraman bakarrik, irina etxera ekarri eta harrotzen diren talo mardul horietakoak egiten eta ogia erretzen ere ikasi zuen, bapo. Aurrena beheko suan egiten omen zituzten taloak. Gero ekonomikan taloak eta alboan zuen labean, ogia.

Baserriko lanak eta etxeakoak egiten ikasteaz gain, bizimodurako egoki etorriko zitzaiola eta, hamazazpi urte zituenean josten ikasten hasi zen. Neguan bakarrik joaten omen zen; udaran bestela ere nahikoa zeregin izaten baitzen etxean.

Soutzetik ia bi kilometrora, Aizarnazabalgo mugan bizi ziren bere lehengusuarenean hasi zen josten ikasten Iñaxi; Muniosoro baserrian. Arratsaldero joaten zen. Hirurak aldera irten etxetik eta zazpiak eta erdiak aldera, itzulera.



Margarita Etxabe eta Pepita Etxabe Muniosoroko ahizpa jostunak. Goian ezkerretik bigarrena, Margarita. Behean ezkerretik hirugarrena, Pepita. Iñaxi, eskuinetik hirugarrena



Jesus Ambrosio Oliden Eizagirre, Urola ibaian ito zen gaztea

Agian, boladaka berritu izan den kontua izan da urteetan, baina orduan ere noiznahi zabalitzen omen ziren *sakamantekas* bidera irrendako kontuak. «Kotxe bat bidetik somatu orduko bazterreko sasi tarteren batean edo, gordetzen ginen» —gogoratzen du. Hala ere Iñaxi ez zen edozein moduz kokiltzen zen horietakoa. Behin itotako mutil baten gorpua atera behar izan zuen ibaitik.

«Oikian bada Jesuskoa deritzan baserri bat —dio Iñaxik. Bertako mutil batek ez dakit zer txori ikusi izango zuen. Behintzat etxera joan eskopeta hartu eta tiro egin zion. Baita jo ere, baina txoria ibaira erori. Sartu da mutila ibaira txoria jasotzera, galdu du hondoa, eta kitto! Bertan ito zen. Hogeita hamar urte zituen. Jesus Ambrosio Oliden Eizagirre zeritzan. Nik bigarren apellidos du Oliden, baina ez ginen fameliako egiten.

Txanela gure etxean bazegoela eta gorpuzta ateratzeko joango al ginen etorri ziren erreguka. Arraunean joateko ez nuen inoren beharrik baina gure etxetik nahiko gertu zegoen urpresan gora zegoen txanela igo beharra; gehitxo nik bakarrik egiteko. Gure alboan bazegoen Afrikan soldadu egon zenetik paludismoak jota bizi zen mutil bat. Hark lagundu zidan urpresatik txanela igo-tzen. Urpresa hori ez dago orain. Bota, kendu egin zuten gerora».

Eta horrela atera zuten Jesus Ambrosioren gorpua. Iñaxik hamazazpi-hamazortzi urte omen zituen orduan.

## Bertsotan, konturatu gabe

Ondurako bertso iturria irekitzen hasia zegoen Iñaxiren barnean. Kantatzea beti gustatu izan zaion emakumea izaki, elizan ere kantore, isildu gabe aritzen omen zen kantuan etxeko lanak egiterakoan. Eta behizain joaten zenean beti eramaten omen zuen patrikan aitak edo anaietakoren batek nondik-handik ekarritako bertso-paperen bat. Iñaxik kantatuz-kantatuz denak buruz ikasten omen zituen. Oraindik ere gordetzen du gainazalak galduak dituen liburutxo bat, hogeigarren mendeko hasierakoa edo dena; hasi Xenpelarrengatik eta Jose Mari Iparragirrek,



Zarauzko hondartzan egun-pasa joanda. Aurreko eskuineko ertzekoa da Iñaxi

Bilintxek, Pepe Artolak, Pedro Mari Otañok eta Txirritak jarritako hainbat bertso sorta jasotzen dituen. Gehientsuenak buruz ikasi zituela esaten du Iñaxik.


Baina josten ikasten hasi zen urteetan jaiotzen bere barne iturria. Ur-negar sotila hasieran; oparoagoa, gero; bizirik duen arte agortzeko tankerarik ez duen iturria, orain. Munioren soroko jostundegian bertako bi ahizpa aritzen ziren josten. Margarita zen ofizioa zekiena eta Pepita, harekin batera aritzen zen ahizpa gazteagoa; eta bertsozalea zena. Anaia



Iñaxi San Bartolometan Oikian bertsoan

bat ere omen zuten santa-eskean koplari ibiltzen zena. Josten aritzen ziren hiru-lau orduetan hitz egin, kantatu, errezatu eta dena egiteko aukera izaten zutela dio Iñaxik. Garai bateko liñariak bezalatsu, edo eta Josepa Antoni Aranberri Petrirena, Xenpelarren ilobak jostunkideekin bezalatsu, herri memoriak kantu gisa gorde izan dituen bertso jarrien errepertorioa behin eta berriro berritzen zuten. Juan Mari Lekuona zenak egiazko bertso-eskola eta transmisioegune izendatu izan zituen liñarien bilguneak. Liñaritzza galdu zenarekin batera, galdua den usadioa egun.

Munioz-soroko jostundegian bat-batean bertsoan ez, baina bertso kontuetaz maiz aritzen omen ziren hizketan. Pepita Uztapidezale sutsu eta Iñaxi Basarrizalegoa, Uztapide gogozkoa zuen arren. Pepita kenduz gero,



Iñaxik 2002an eskuz idatzitako hiru bertso

bere lagunen artean ez omen zen besterik bertsozaletasuna nabarmentzen zitzaionik. Eta Oikiako orduko mutiletan ere, Inazio Jauregik izan behar zuen, horrela, bertsoan saiatzen zen bakarra; gogotsu saiatu ere!

«Batean kantatu genuen biok —dio Iñaxik. Baina ez, elkarrri. Zarautzen Antoniano zine-man izan zen. Aretoa leporaino beteta zegoen jendez. Frantziskotarren Hirugarren Ordenak antolatutako batzarraldia izan baitzen bertan. Inaziok kantatu zituen bereak eta nik, nireak. Hura zen jendaurreko nire bigarren agerraldia.



Handik berehalaxe Aita Agirretzek antolatu zuen neskontzako ekitaldi bat. Eta hark beti nahi izaten zuen Iñaxi bere ondoan. Orduan ere kantatu nuen eta geroztik Zarautzen askotan, ia urtero, etenik gabe.

Nik ez dakit doinuak nola ikasiko nituen. Anaiei entzunda ikasiko nituen edo, behintzat nik doinuak banekizkien. Gero Oikian San Bartolometan beti izaten ziren bertsolariak eta haiei entzunda ere ikasiko nituen. Irratitik ez behintzat. Nik hemezortzi urte egin nituen arte ez genuen irratirik etxean izan eta.»

## Plazarik ez

Bertsolari izatea estimatua zen Soutsen eta Oikian. Emakume bertsolariarena beste kontu bat zen, ordea. Iñaxik dioenez emakumeak ez zeukan tabernetan eta bertsotan haserik garai haietan. Bestela, laster egingo zen fama ederraren jabe! Hori mari-mutila hori! eta antzekoak laster gaineratuko zizkioten. Horregatik tabernan eta ez zuen Iñaxik behin ere kantatu izan.

Jendaurreko lehen saioa San Frantziskoren hirugarren ordenakoen urteko lagunarteko



Arantzazura eskurtsioan joandako batean ateratako argazkia





IGNACIA ECHAVE

Urte Santua zela eta hainbat alorretan garaile izandako hainbaten argazkiak Arantzazu aldizkarian. Ezkerrean goitik bigarrena, Iñaxi



bazkarian izan zen. Gero Arantzazun, gogo-jardunak egitera joan zenean. Bertako aldizkarian argitaratu zituen geroago bertso idatzia. Eta beti jirabira horretan gauzatu zen bere jarduna.

Plazan kantatzera iritsi zenerako bazituen urte batzuk. Oriora joan zenerako, esate baterako, ezkondata zegoen. Baina ezkondu aurretik ere egin zuen saiorik.

Behin Antonio Arrue etorri zitzaion Euskaltzaindiaren izenean etxera. «Nik ez dakit nondik bilatu ninduen» —dio oraindik ere Iñaxik. Donostiako Trinitade plazan jaialdi bat egitekotan zirela bertsolari gazte eta hasi berriekin eta emakumezko bat tartean iza-

tea gauza handia izango zela eta ahal bazuen joateko eskatu zion.

Osasunez pattal samar zebilen aldian egokitu ere, eta apenas joateko gogo handirik zeukan Iñaxik. Hitza emana, ordea, eta joan egin zen. Bertsoren bat kantatu ere kantatu zuen. Baina euria hasi eta bertan behera gelditu zen funtzioa. Patxi Mujikak garai hartan egin zituen grabazioetatik ondorioztatu dugunez, ekitaldi hori 1963ko irailean izan zen.

Izatez sariketa bat zen bertan behera utzitako ekitaldi hori, urte bereko abenduaren hogeita bian, Santo Tomas biharamunean burutu ahal izan zen Donostiako Trinitade pla-

zan. Bigarren aldi honetan Iñaxi ez zen joan. Jose Intxausti segurarra gelditu zen txapel-dun eta Berrobiko Bittor Ibarbia, bigarren. Nahiz eta saritan irabazleak baino diru gehiago jaso zuen berrobitarrak, plazan lehen aldiz kantatzen zuenarentzat zegoen sari berezia berarentzat izan zelako.

Ez dauka garbi zertatik eta nola izan zen, bai-na lehenagotik ere kantatua zen Donostian Iñaxi Etxabe. Leku itxi batean eta sari-banaketan bat tarteko izan zela, hori bai gogoratzen du, eta baita Zarauzko neska-mutil batzuen bitartez heldu zitzaizola bertara joateko konbitea ere.



«Arantzazuko Ama Oikian». Iñaxiri lehen saria merezi izan zion bertso sortaren argitalpena Arantzazu aldizkarian

## Arantzazuko sariaren irabazle

Etxean eta ingurukoengan bertsolaria estimatua izateaz gain, Inazio Goikoetxea Oikia-ko apaizarengandik jasotako onespena tarteko, Iñaxirentzat erabakigarria izan zen bere zaletasuna lantzen jarraitzeko Arantzazuko saria irabazi izana.

Arantzazuko Amaren urte santua izan zen 1955eko irailetik 1956ko irailera bitartekoa. Antoine D'Abaddiek hemeretzigarren mendean antolatu ohi zituen Lore Jokoetan bezala, era guztietako sariketak antolatu ziren urte santu hori zela eta. Frantzisko Eskudero, Bitoriano Gandiaga eta abar izan ziren sarituak. Baita Iñaxi ere.

Urte santu hori zela eta, herriz herri ibili zen Arantzazuko Amaren irudia. 1956ko apirilaren hogeita hamarrean bisitatu zuen Oikia. Arantzazun antolatutako sariketetako bat, Arantzazuko Amaren ibilaldi horretan norberaren herrira egindako bisita bertsoan hobekien kontatzen zuenarentzat izan zen. 1956ko bostehun pezetako saria bazen zer bait, eta partaide asko izan zituen sariketak. Iñaxi Etxabek jarritako bertso sorta hobetsi zuen epai-mahaiak. Dударik ez dago garaipen honek letradunen artean ezaguna izatera ekarri zuela bere izena. Emakume bertsolari bat bazen gerraondoko Gipuzkoan.



Urte Santuari Arantzazu aldizkariak eskaini zion ale bereziaren gainazala

Garai horretakoa da Arantzazuko historia bertsoan kontatuz Iñaxik egin zuen jarrialdia. Hamabi ataletan banatzen den eta guztira 70 bertso dituen jarrialdia da.

Badu Iñaxik Zarautzen irabazitako beste lehen sari bat. San Frantziskoren Hirugarren Ordenakoek antolatutako sariketa izan zen. Zortziko handian jarritako hamalau bertso-ko sorta bidali zuen Iñaxik, eta baita lehen saria lortu ere. 1957an izan zen sariketa hori.

## Frantziskotarren hirugarren ordena

Izan duen bilakaerari erreparatuz gero, Iñaxi Etxaberen bertsozaletasunaren garapean eraginkorrak izan dira Arantzazu eta Frantziskotarren Hirugarren Ordena edo Anaidia.

Ezaguna da Vatikanoko Bigarren Kontzilio aurreko laikoen kristau bizitzan Mariaren Alabek eta Luistarrek gure herrietako neska eta mutil gazteen artean izan zuten eragina.

Lehen jaunartzerako prestakuntzarekin hasen zen haurren katekumenotza. Komunio handia egin bitarterainoko jarraipena izaten zuten katekesiak, eta behin komunio handia edo nagusia eginda, Mariaren Alabak elkartearen sartzen ziren neskek eta Luistarretan, mutilak. Eta horrela, ezkontzen ziren arte.

Asisko Frantziskoren Hirugarren Ordenak edo Anaidiak ez zuen Mariaren Alabak eta Luistarren hainbateko hedapenik izan Gipuzkoan. Baina Oikian, esate baterako, hamalau-hamabost urtetik gorako neska-mutilik gehientsuenak anaidi horretako kide izaten ziren. Luistarretan edo Mariaren Alabetan ez bezala, Anaidi honetan hil arteraino jarrai dezake kristau laikoak, nahiz ezkondua izan.



Hirugarrendarren festa eguneko bazkalondoan, Iñaxi bertsoan

Urtean behin kuota ordaintzea, egunero hamabi «Aitagure» errezatzea, soinean eskapulario bat eramatea —elizkizunetan eskapulario handiak gainerik jartzen ziren eta kordoi zuria, ia fraideek eramaten zuten bezalako—, eta hirugarrendarrentzat antolatutako elizkizunetara joatea. Horra hirugarrendarren orduko betebeharrak nagusiak.

Ministro bat, ministro-orde bat eta idazkaria buru dituen junta bat izaten du lekuan lekuko anaidiak zuzendaritzan. Eta gero, abisuak eman, paperak banatu eta kobrantzak egiteko ardura izaten zuten zeladoreak zeuden. Horretan aritu izan da urteetan Iñaxi Etxabe.





San Prudentzio erromeriara joandako beste urte batean. Iñaxi, atzean eskuinetik, bigarrena



Iñaxi eta Juan, Urbian



Juan, senarra; Emilio, anaia; Iñaxi Etxabe eta Arantxa alaba, Arantzazun

## Neskame 23 urterekin

Bederatzi urtetan etxean astoa bezala lanean jardun eta gero, Zarautzera neskame atera zen Iñaxi. Hogeita hiru urte zituen. Etxean geldituta ez zuen etorkizunik ikusten. Gainera anaietan bigarrena etxera ezkondua zegoen eta familia hazten ari zen. Etxean ama uzteak eman omen zion penarik handiena.

Eta akabo, ordura arteko erromeri eta ondorengo mutil-neska-laguntze kontuak. Izan ere, igandea edo jai eguna noiz etorriko zain egoten omen ziren garai hartako Oikiako neska-mutilak. Aurrena bezperetara joan, eta gero inguruko erromeriaren batera. Oikian bertan



abuztuan San Bartolometan hasi eta iraileko igande guztietan erromeria izaten omen zen. Gustuko erromeri leku bezala aipatzen du Iñaxik, batik bat, Mia (Meaga). Eta Getariako San Prudentzio, Artadi eta beste hainbat leku.

Eskusoinu handiarekin edo pianolarekin, edo eta bestela eskusoinu txikiarekin edo diatonikoarekin izaten omen ziren erromeriak. Orkestinarekin herriko jaietan edo bakarrik izaten ziren dantzaldiak. Dantza librean saio galantak eginak izan behar dute Iñaxik eta bere lagunak. Dantza lotuan egitekotan, neskak neskekin. Mutilekin arituz gero, jakinekoa izaten omen zen apaizaren zigor publikoa: jaunartzera hurbiltzen zenean Mariaren Alabari zegokion zinta kendu. «Eta hori pulpilotik handiagorik entzun beharrik izaten ez bazen!»

Neskametzta liberazio bat bezala izan zen Iñaxirentzat. Zer zen bada etxeko lanak eta etxe ondoko jardintxoko bazterrak txukundu behar hura, konparatuta goizetik gauera baserriko etengabeko jardunarekin? Aisako kontua!!! Baina berehala osatu izango zen lanez bapo. Zein airoso moldatzen zen ikusita, etxekoandreak beste jardun zati bat erosi zuelako, alde batetik; eta bestetik, sakristauak hala eskatuta, aldare bateko garbitasunaz arduratu beharra heldu zitzaiolako. Lana lepo, eta irabazi gutxi. Hala ere horrenbestean konforme. Fabrikan lana eginez gero diru gehiago eskuratzerik bazegoen arren, Soutsetik orduko nongo fabrikara jo? Eta apopilo jartzekotan irabazien zati handi bat galdu behar.



San Prudentzio erromeriara joandako beste urte batean. Iñaxi, atzean eskuinetik, bigarrena

## Basarrirekin teman

**L**arre motzean ohitua «hausnarrean» bizkorragoa izaten, nonbait, eta Iñaxik ere asmatu zuen erantzukizunei aurre egiten. Beti ere, umorerik galdu gabe eta «barneko iturriari» arretarik ukatu gabe.

Asaldatzeko kemenik bazuela ondo erakutsia zeukan, bestalde. Euskal Herriaren galeran, batez ere euskararenean, errudun nagusia emakumea zela, ez zuen bada bertsoan plazaratu Basarrik!!! Iñaxik aitortzen du orain ere, zerbaitetan izan zezakeela arrazoi Basarrik hala aritzeko. Baina esan zituenak gehiegizkotzat jota, beste bertso



Iñaxi bertsoan ezkontza eguneko bazkalondoan

sorta batekin erantzun zion, gizasemeei sumatzen zizkien akatsak nabarmenduz.

Bihotzondoraino sartu zitzaion, nonbait, bere bertso eredu zen Basarriren «emakumeek galdu behar gaituzte» hura. Oraindik ere go-goan dauzka bertso haietako hainbat arrazoi:

Ekaitz gaitztoek soroak galtzen dituzten bezela sinista zazu emakumeek galdu behar gaituztela.

Noizbait ezkontuta hastean etxeko lanak egiten, sua nola pizten den ere, askok ez dute jakiten.

Horrelako harribitxiak plazaratu izango zituen Basarrik «Aitonaren malkoak» izenburua jarri zien bertsoetan, *Anaitasuna* aldizkarian. Iñaxiren erantzuna ere *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zen 1955eko azaroan, 139. zenbakian. Honela zioen sortako hirugarren alean:

Bizio txarrik asko badago  
gizasemeen artean.  
Begiratzea nahikoa duzu  
auzo taberna atean.  
Egunero han ikusten dira  
pozik asko zurrutean,  
jakinagatik hori dutela  
beren buruen kaltean;  
ez dira hala 're geldituko  
patrikak hustu artean.

Gizaseme askoren joko-zaletasunarengatik «miseriarik ez da faltatzen/ gero familia askotan» salatu ondoren, honela amaitzen zuen bertso sorta:

Noranahi joan behar dutenean  
ez dute falta dirurik,  
emakumeak ibili behar  
zorrak ordaindu ezinik,  
etxean falta den gauzengatik  
ez dutelako axolik.  
Neskatxak, garai datorrenean  
ez galdu zuen zentzunik,  
horrelako bat lagun hartuta  
ez dagolako gauza onik.

Iñaxirenak bertso onak zirela idatzi eta esan omen zuen Basarrik. «Kantatu izan nuentan ere beti aritu ohi zen nire goralmentan» —esaten du Iñaxik. Hori bai, aurrez aurre sekula hitzerdi bat elkarri egin gabe. Agian eskerrak emanek neronek luzatu beharko nuen lehen urratsa. Baina lotsatu egiten nintzen ezer esatera. Kanean ikusten ginanean beti agurtu ohi genuen elkar, baina besterik ez. Niretzat beste maila bateko gizona zen Basarri —aitortzen du oraindik ere Iñaxik.

Bertsolari mordo batek egin nahi izan zion azken agurra Basarri Zarauzko Dorre Luzea enparantzan, bere hileta egunean. Iñaxik ere ez zuen huts egin nahi izan. Hona hemen kantatu ziona:

Bertsolaria zinen ezker  
bertsoz nahi zaitut agurtu  
horretarako zendun dohaia  
aisa zitzaizun loratu.  
Amaigabeko zorionakin  
Jaunak zaitzala saritu.  
Gu hemen behean jardungo gera  
eta zuk goitik kantatu.

Artean feminista izatea zer zen ikasi gabea zen Iñaxi, Basarri erantzunez, emakumeen defentsan bertso sorta hura jarri zuenean. Geroago ere kantatuko zuen emakumeen gorantz Arantzazura erromes egiten ziren igoeren kontakizuna bertsoetan egitean.

Gitarra lagun zuela Lurdes Iriondo herriz herri kantari abiatu zenean, Zarauzko hirugarren ordenakoek konbidatu zuten behin beren biltzarretako batera. Urnietarrari zuzenean entzuteko aukera izan zuten. Ordainetan ondorengo hiru bertso hauek jaso zituen Iñaxirengandik:

Neskatx gazte bat badugu hemen  
gutziz argi ta abila,  
txoritxo hainbat abeslari ta  
uxoa bezaian umila.  
Urnietan du bizilekua  
haruntz jo behar bere bila;  
Gaur bezalaxe guganatzea  
sarritan gerta dadila.

Kitarratxoa eskuan eta  
aingeruaren ahotsa,  
Euskal Herriko txoko askotan  
zu, Lurdes, hola zabilta.  
Abesti goxo, xamur hoiekin  
ikulturikan bihotza,  
Zuk atseginez betetzeituzu  
anima eta gorputza.

Entzule denei gogozko zaie  
ibiltzen duzun doinua,  
Zure ondoan ez da ekaitzik  
ihes dihoa lainoa.  
Hitz mamitsuak ezpainetan ta  
kitarratxoan soinua;  
Bai maitagarri dela benetan  
holako andereñoa.



Lurdes Iriondo Zarauzko Hirugarrendarrentzako kantari. Atzean, Iñaxi

Francoren diktadura urteetan, sindikatu bakarra zegoen, sistemarena. Langilearen eguna sindikatu bakar horren gorantzan ospatu ahal izaten zen, ez bestela. Eta emakumearen nazioarteko eguna eta antzekoak ospatzea, pentsatu ezinezkoak ziren. Demokrasiaren etorrerarekin plaza erdira ateratako ospakizunak dira horiek eta lřaxik ere, behin baino gehiagotan kantatu izan ditu bere aldarriak bertsoan, 1991ko bi bertso hauek adierazten duten bezala:

Emakumeen eguna izan da  
aurten martxoan zortzia,  
Hori delata badago hemen  
zerbait esateko gaia.  
Munduan zehar agertu oi da  
nonnahi gu baztertu nahia.  
Noiz izango du emakumeak  
merezi duen tokia?

Gertatzen dena ez gaituztela  
aintzakotzat ere hartzen,  
Gogorra baina, hori hala dala  
sarritan da nabarmentzen.  
Lana egin bai neurririk gabe  
baina hori ez da ordaintzen,  
Emakumea esklaba izanaz  
aspertua da bizitzen.



Arantxa alaba, txikitan



## Ezkontza eta amatasuna

Iñaki Etxabe 1964ko urriaren hamabostean ezkondu zen Zarauzko parrokian. Juan Mitxelena hartu zuen senartzat. Zarauzko Iñurritzako familia ezagun batekoa zen senargaia. Salvatore Mitxelena lehengusua zuen eta osabak, Roke eta Arkanjel aita frantziskotarrak. Eztei egunean ere bertso eske hasi zitzaizkion bazkaltiarak eta kantatu zituen ale batzuk Iñaxik.

Familia eder bat izateko ilusioz ezkondu ziren Iñaxi eta Juan. Baina ez zuten suerte handirik izan. Bizpahiru haur-galtze izan omen zituen bata bestearen segidan. Azkenean, lau hilabetez ohean geldu egon behar izan zuen baldin eta haurrik izatekotan.

Ez ziren motzak izango lau hilabete haiek. Hala ere konforme dena ondo irten zenean eta alaba Arantxa hazteko aukera izan. Iñaxik hiru bertsotan kontatu zion 22 urte egitean alabari, nola bizi izan zuen bolada hura:



Iñaxiren anai-arrebak eta berauen ezkontideak, Iñaxi eta Juan ezkondu ziren egunean. Zutik ezkerretik eskubira: Manuel Alkorta eta Andresa Etxabe, Jesusa Lopetegi eta Joakin Etxabe, Maria Ulazia eta Jose Kruz Etxabe, eta Migel Etxabe. Behean eskerretik eskubira: Pepita Arkamendi eta Emilio Etxabe, Iñaxi Etxabe eta Juan Mitxelena ezkonberriak, Zeledonia Etxabe eta Pako Etxabe

Ama naiz eta zu zera, berriz,  
nire alabatxo maite,  
Mundu hontara agertu zena  
orain hogeita bi urte;  
Horretarako sufrimentuan  
hartu behar nuen parte,  
Atseginetik aparte,  
Ohean lau hilabete,  
Ohean lau hilabete,  
Egon beharra alztatuzeko  
agindu zidaten arte.  
Sufrimentua garratz da baina  
nik haurtxo bat nuen maite  
Nik haurtxo bat nuen maite.

Garai hartako nire ametsa  
honelaxe zen betea,  
Neurri gabeko gazi-goxoak,  
penak eta suertea.  
Hoiiek guztiak gaindituzeko  
bazegon borondatea;  
Ondoren erabakia  
Ebakuntza egitia  
Ebakuntza egitia.  
Modu horretan haurtxo txikiak  
ikusi zuen argia.  
Ze begi urdin politak eta  
larrosaren aurpegia  
Larrosaren aurpegia.

Orduan haurtxo genuen hura  
orain gazte ta sasoiko;  
Mundu honetan bide zuzena(r)i  
ez zaiozu egin uko;  
Beste modura zorionikan  
ez baitezur aurkituko.  
Zuzentasunan lekuko  
Nonahitan agertu tinko  
Nonahitan agertuko tinko.  
Zure amaren kontsejutoak  
ez al dituzu ahaztuko;  
Jainkoak lagun deizula beti  
gauzak ondo ikusteko  
Gauzak ondo ikusteko.



Iñaxi bere alaba Arantxari dantzan erakusten Zarauzko Aisia gainean

Gaur amona eginda dago Iñaxi. Bilobekin jolastea gustatzen zaio. Eta biloben peskizan zebilela Zarauzko malekoian erorita bi hantetan jasan zituen zaurien ondorioak pairatzen ari da bost-sei hilabete geroago ere.

Gaztetxotan pilotarako zuen grinak alde egin dio Iñaxiri. Baita gaztarooan erromerietan egin ohi zituen dantza saioetarako zuen sasoiak ere. Oraindik emariz urritu ez zaiona, hamasei-hamazazpi urtetan bere barnean sumatu zuen kantu-iturri hura da. Etenik gabe, oraindik ere borborka, gauzarik naturalena bezala, gertakari guztiei kantari bere barnean sumatzen duen iturria.

*Emen agertutxenda  
eginolegum lama  
alegina izanda  
lagundu diguna  
ai zembat oroitzapen  
bizitzan barrena  
ukatu ezina da  
bazela kemena*



Oraingo familia. Ezkerretik eskubira: Juan Mari suhia, Arantxa alaba Oier semea magalean duela, Juan eta Iñaxi, erdian Jon biloba dutela

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:*

- Etxabe Oleden familiari
- Mitxelena Etxabe familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko ekaina

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2571-9 (Lan osoarena)  
978-84-457-2572-6

L.G.: BI -

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística